

TELEKOMUNIKAZIO INGENIARITZAKO MASTERRA

BERRIA!

Jakintza Adarra: **Ingeniaritza eta Arkitektura**

Telekomunikazio Ingeniaritzako Masterra
Telekomunikazio Teknologiko Ingeniaritzako
Graduaren jarraipen naturala da. Master honek
elektronikaren, telematikaren eta komunikazio-
sistemen arloetan ezagutza aurreratuak emango dizkizu.

Hiru lauhileko egitura berrituari esker,
telekomunikazioen arloko teknologietan sakondu ahal
izango duzu, eta aukera emango dizu telekomunikazioen
arloko edozein proiektu motaren ikuspegi orokorra eta
zabala izateko. Horri esker, proiektuak zuzendu ahal
izango dituzu arlo horietako edozeinetan.

Horrela, lehenengo bi lauhilekoetan (lehen ikasturtean),
elektronika, telematika edo komunikazio-teknologia
berriei buruzko prestakuntza aurreratua jasoko duzu.
Azken lauhilekoan hainbat aukera izango dituzu:

- Prestakuntza DUalean ibilbide bat egitea, prestakuntza hori IKTen eremuko enpresa batean lan-kontratuarekin egonaldia eginez osatzeko. Bertan, zure Master Amaierako Lana bilakatuko den proiektu bat garatuko duzu.
- Zure prestakuntza osatzea espezializazio handiko hautazko ikasgaien ibilbide baten bidez: hala nola ibilgailu elektrikoetan, elektronika integratua, sistema telematikoetan edo adimen artifizialeko irakasgaiak, goizetan enpresan praktikak egiten dituzun bitartean.
- Nazioarteko mugikortasuna egitea, Eskolako titulazio bikoitzeko akordioei esker.

Masterrak telekomunikazio-ingeniari gisa gaituko zaitu (CIN/355/2009 Agindua), eta, beraz, telekomunikazioekin zerikusia duen edozein ingeniari edo sektoretan lan egin ahal izango duzu, baita telekomunikazioen edozein arlotako proiektuak sinatu ere.

Onartzeko izapidean. 2026/2027 ikasturterako aurreikusten da.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

- Telekomunikazioko ingeniari gisa jardutea.
- Telekomunikazioen, elektronikaren edo telematikaren edozein arlotan proiektuak egitea eta irtenbide teknikoak garatzea.
- Telekomunikazioaren sektorean enpresa berriak sortuz ekitea.

Irteera profesionalak:

Hainbat eremutan lan egin ahal izango duzu, hala nola:

- Telekomunikazio Ingeniaria
- Telekomunikazioen arlo guztietako proiektuak zuzentzea.
- Zuzendaritza Nagusia, Zuzendaritza Teknikoa, I+G+B Proiektuen Zuzendaritza.

Máster aukeratzeko arrazoiak:

- Kalitatezko prestakuntza Euskadiko Ingeniaritza Eskola erreferentean.
- Aukera zabalak enpresan edo enpresa-geletan praktikak egiteko.
- Prestakuntza Dualeko ibilbidea. Sektoreko puntako enpresetan praktikatzu ikasiko duzu.
- Nazioarteko mugikortasuneko ehun hitzarmen baino gehiago maila goreneko Europako erakunde akademikoekin, ingeniarietako sare eskusiboak barne, hala nola Global E3 eta E4.

Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologien arloan punta-puntako proiektuetan lan egin nahi baduzu eta kalitatezko prestakuntza eta enpresetan praktikak egiteko eta mugikortasunerako aukera ugari nahi badituzu, Telekomunikazioaren Ingeniaritzako Masterra zuretzat da.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (nahitaezko)

Lauhilabete 1

- Komunikazio aurreratuen sistema elektronikoak
- Seinalearen tratamendu aurreratua
- Irrati bidezko komunikazioen diseinu aurreratua
- Sare eta zerbitzuen arkitektura aurreratuak Interneten
- Sistema digital aurreratuen diseinua

Lauhilabete

- Microelektronika
- Lidergoa eta proiektuen kudeaketa
- Fotonika eta komunikazio optikoak
- Sare eta zerbitzuen plangintza, hedapena eta eragiketa
- Sareen, aplikazioen eta edukien integrazioa

BIGARREN MAILA 30 kreditu (hautzako 18 eta nahitaezko 12)

Lauhilabete 1

Prestakuntza Dualeko Ibilbidea

- Telekomunikazio Teknologiak Integratzeko Enpresa Egonaldia (DUAL)
- Master Amaierako Lana (DUAL)

Ibilbide Orokorra

- Telekomunikazio-teknologiaren integrazioa
- Ibilgailu elektrikoaren potentzia elektronika
- Telekomunikazioei aplikatutako Adimen Artifiziala
- Orkestrazio aurreratua
- Smart Grids-erako komunikazioak
- Master amaierako lana

AIPAMENAK

- Prestakuntza Duala (DUAL)